



***1949. zenbakiko FORU AGINDUA, 2010eko urriaren 6koa; horren bidez, Vista Alegre unitateari dagokion Mendexako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren ingurumen ebaluazio egiteko erreferentzia dokumentua azaltzea ebazten da.***

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak I A) Eranskinean xedatzen duenarekin bat etorritik, hor ezarri baita zein plan dauden ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio prozeduraren pean, eta kontuan hartuta, halaber, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko 3. artikulua, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen duena, administrazio prozedura horren pean jarriko dira hiri antolamendurako plan orokorrak.

9/2006 Legeko 9. artikuluan eta 183/2003 Dekretuko 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen organoak zehaztuko du, ukitutako administrazio publikoak eta publiko ininteresduna identifikatu eta kontsultatu ondoren, zenbateko irismena, zehaztasuna eta espezifikotasuna duten ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenak edo ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren azterlanak, erreferentzia dokumentu bat idatzita. Gainera, dokumentu horrek barne hartuko ditu ingurumen irizpide estrategikoak eta ingurumen helburuen adierazleak eta kasuan-kasuan aplikatzekoak diren iraunkortasun printzipioak. Halaber, ingurumen organoak informazioa zein eratan jasoko den eta kontsulta zein eratan egingo den zehaztu beharko du.

Ondorioz, Ingurumeneko Foru Sail honek,

***ORDEN FORAL número 1949 de 6 de octubre de 2010, por la que se resuelve formular el Documento de Referencia para la evaluación ambiental de la Modificación Puntual de las NNS de Mendexa en la Unidad de Vista Alegre***

De conformidad con el Anexo I A) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, que establece la lista de planes sometidos al procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, y de acuerdo, asimismo, con el artículo 3 del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, serán sometidas a este procedimiento administrativo los Planes Generales de Ordenación Urbana.

En virtud de lo establecido en el artículo 9 de la Ley 9/2006 y en el artículo 6 del Decreto 183/2003, el alcance, nivel de detalle y el grado de especificidad del informe de sostenibilidad ambiental o estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental se determinará por el órgano ambiental, tras identificar y consultar a las Administraciones públicas afectadas y al público interesado, mediante la emisión de un documento de referencia que incluirá además los criterios ambientales estratégicos e indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad aplicables en cada caso. Así mismo, el órgano ambiental deberá definir las modalidades de información y consulta.

En consecuencia, este Departamento Foral



Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorreko 44. artikulua bidez emanak zaizkion eskumenak baliatuz, eta bat etorritik, halaber, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuarekin, erreferentzia dokumentu hau egin du, ingurumen ondorio hutsetarako eta Mundakako hiri antolamendurako plan orokorrari erreferentzia eginez:

**VISTA ALEGRE UNITATEARI  
DAGOKION MENDEXAKO ARAU  
SUBSIDIARIOEN ALDAKETA  
PUNTUALAREN INGURUMEN  
EBALUAZIOA EGITEKO  
ERREFERENTZIA DOKUMENTUA.**

**1 AURREKARIAK**

2010eko otsailaren 4an, Mendexako Udalak erreferentzia dokumentu bat egiteko eskatu zuen, eta horretarako beharrezkoa da aurretiaz ukitutako administrazio publikoak eta publiko interesduna identifikatzeko eta kontsultatzeko izapidea egitea. Eskabidearekin batera, Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko alde aurretiko informazioa eta aipaturiko plangintza aldaketari buruzko kartografia aurkeztu dira. Plangintzaren izena Vista Alegre unitateari dagokion Mendexako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala egiteko ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio azterlanaren hasierako agiri da. Basoinsa SM enpresak idatzi du agiri hori, Promociones Ichaso-Aldegui SM enpresarentzat, eta 2010eko uztailaren data du.

Hau da aurkeztutako dokumentazioan jasotako antolamendu proposamenaren

de Medio Ambiente, en el ejercicio de las atribuciones conferidas por el artículo 44 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y de acuerdo asimismo con el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental, formula, a los solos efectos ambientales y con referencia al Plan General de Ordenación Urbana de Mundaka, el siguiente:

**DOCUMENTO DE REFERENCIA  
PARA LA EVALUACIÓN  
AMBIENTAL DE LA  
“MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS  
NNSS DE MENDEXA EN LA UNIDAD  
DE VISTA ALEGRE”.**

**1 ANTECEDENTES**

Con fecha 4 de agosto de 2010, el Ayuntamiento de Mendexa solicita la emisión del Documento de Referencia para lo cual es preciso proceder, de forma previa, al trámite de identificación y consulta de las administraciones públicas afectadas y al público interesado. Acompaña a la solicitud un documento con la información preliminar de la modificación de NNSS y cartografía referida a la mencionada modificación de planeamiento denominado “*Documento de inicio de la EclA de la modificación puntual de las NNSS de Mendexa en la unidad de Vista Alegre*”, el cual ha sido redactado por la empresa Basoinsa, S.L. para Promociones Ichaso-Aldegui, S.L. y fechado en julio de 2010.

La síntesis de la propuesta de ordenación contenida en la documentación aportada

sintesia:

1. Vista Alegre unitatea berrantolatzea, alde hori berriro mugatuta eta berriro dentsifikatuta. Egoitza azalera handitzea proposatzen da, baina ez da zenbatekotu, ez eta grafikoki zehaztuta geratu ere. Gehienez ere 28 etxebizitza egitea proposatzen da, 4.104,5 m<sup>2</sup>-ko sestra gaineko sabaiko azalera batean.
2. Karraspio hondartzari zerbitzu emango dion parking bat egitea; horretarako, erreserbako lurzorua lagatzea aurreikusten da, 3.846,55 m<sup>2</sup> inguruko azalera, hain zuzen ere, eta hor 180 aparkaleku eraikitzea zenbatesten da. Halaber, adierazten da aparkalekutik Karraspio hondartzara oinezkoentzako sarbide bat egiteko lursailak lortu direla. Ez da zehazten ez zenbateko azalera duen ez eta non dagoen ere.
3. Tokiko bide sistema bat egitea, BI-3438 errepidea BI-4449 Lekeitiotik Mendexara sartzeko errepidearekin konektatzeko, eta, hala, lehendik dauden eraikinei eta Vista Alegren egin asmo denari sarbidea ematea. Kontuan hartutako jarduna bi tartetan banatzen da: 1.009,21 m<sup>2</sup>-koa bata eta 1.019,06 m<sup>2</sup>-koa bestea. Lursail hori gaur egun bide erreserbako lurzoru urbanizaezin gisa dago sailkatua, eta laga egingo da, bide sistema orokorreko hiri lurzoru gisa sailkatzeko. Ez dago jasota kartografikoki.
4. Hiri parke bat egiteko lursaila lagatzea. Babes bereziko lurzoru

es:

1. Reordenación de la unidad de Vista Alegre, consistente en la redelimitación y redensificación del área. Se plantea la ampliación de la superficie residencial, no se cuantifica ni queda definido gráficamente. Se plantea un número máximo de 28 viviendas a desarrollar en una superficie de techo sobre rasante de 4.104,5 m<sup>2</sup>.
2. Creación de un parking que de servicio a la playa de Karraspio, para lo cual se prevé la cesión de suelo de reserva en una superficie de unos 3.846,55 m<sup>2</sup>, donde se estiman construir 180 aparcamientos. Así mismo se indica que se han conseguido terrenos para construir el acceso peatonal desde el parking hasta la playa de Karraspio. No se especifica la superficie ni su localización.
3. Construcción de un sistema local viario, que conecta la BI-3438 con la carretera de BI-4449 de acceso desde Lekeitio a Mendexa y dar acceso a las edificaciones existentes y prevista de Vista Alegre. La actuación considerada se divide en dos tramos, uno de 1.009,21 m<sup>2</sup> y otro de 1.019,06 m<sup>2</sup>. Dicho terreno que actualmente se clasifica como suelo no urbanizable de reserva viaria, será cedido para su clasificación como suelo urbano de sistema general viario. No queda reflejado cartográficamente.
4. Cesión de terreno para parque urbano. Se trata de un suelo no urbanizable de



urbanizaezina da, eta gune libreen sistema orokorreko hiri lurzoru gisa sailkatzea aurreikusten da. Lagatzea aurreikusten den azalera 9.087,80 m<sup>2</sup>-koa da. Ez dago jasota kartografikoki.

Vista Alegre unitateari dagokion Mendexako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala hasierako faseetan dago. Beraz, horren barruan garatutako proposamen guztiak prozedura honetako ingurumen testuinguruan aztertu beharko dira.

## 2 EGINDAKO KONTSULTAK

*Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko 6. artikuluan ezarritako aurretiazko kontsulten izapidean, erakunde eta entitate hauei egin zaie kontsulta:*

- Mendi eta Natur Guneen Zuzendaritza Nagusia. Nekazaritza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Kultura Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Herri Lan Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Garraio eta Hirigintza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritza.

especial protección que se prevé pase a clasificarse a suelo urbano de sistemas de general de espacios libres. La superficie a ceder prevista es de 9.087,80 m<sup>2</sup>. No queda reflejado cartográficamente.

La Modificación Puntual de NNSS de Mendexa en la Unidad de Vista Alegre se encuentra en sus fases iniciales, por lo que todas las propuestas desarrolladas en el marco de esta, deberán ser analizadas en el contexto ambiental del presente procedimiento.

## 2 CONSULTAS REALIZADAS

Durante el trámite de consultas previas establecido en el artículo 6 del *Decreto 183/2003, de 22 de julio, que regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental*, han sido consultados los siguientes organismos y entidades:

- Dirección General de Montes y Espacios Naturales. Departamento de Agricultura. Diputación Foral de Bizkaia.
- Departamento de Cultura. Diputación Foral de Bizkaia.
- Departamento de Obras Públicas. Diputación Foral de Bizkaia.
- Departamento de Transportes y Urbanismo. Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección de Calidad Ambiental. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.
- Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental.



- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza.
  - Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.
  - Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza, Ingurumen Saila, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.
  - Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritza, Ingurumen Saila, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.
  - Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza. Barne Saila. Eusko Jaurlaritza.
  - Osasun Publikoko Zuzendaritzaordea. Osasun eta Kontsumo Saila. Eusko Jaurlaritza.
  - Ura, Uraren Euskal Agentzia.
  - Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza.
  - Kostaldeen Zuzendaritza Orokorra. Ingurumen Ministerioa.
- Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.
- Departamento de Cultura. Gobierno Vasco.
  - Dirección de Desarrollo Rural y Litoral. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.
  - Dirección de Ordenación del Territorio, Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.
  - Dirección de Planificación Ambiental, Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.
  - Dirección de Atención de Emergencias. Departamento de Interior. Gobierno Vasco.
  - Subdirección de Salud Pública. Departamento de Sanidad y Consumo. Gobierno Vasco.
  - Agencia Vasca del Agua, URA.
  - IHOBE, Sociedad Pública de Gestión Ambiental. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.
  - Dirección General de Costas. Ministerio de Medio Ambiente.



- Lea-Artibaiko Mankomunitatea.
- EHNE-Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna.
- Ekologistak Martxan.
- Ekozain Ekologia Taldea.
- Lekeitioko Udala.
- Mancomunidad de Lea-Artibai.
- EHNE-Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna.
- Ekologistak Martxan.
- Ekozain Ekologia Taldea.
- Ayuntamiento de Lekeitio.

Halaber, 2010eko abuztuaren 15ean, iragarki bat argitaratu zen prentsan, publiko interesduna identifikatzeko eta hari kontsulta egiteko, eta haren eskura jarri zen espedienteari buruzko dokumentazioa, hala Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Foru Sailaren egoitzan nola haren webgunean (<http://www.bizkaia.net/evaluacion/>).

Egindako kontsulten inguruan jasotako erantzunak kontuan hartu beharko dira Vista Alegre unitateari dagokion Mendexako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala eta haren Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena (IIT aurrerantzean) egitean.

Ezarritako epea amaituta, IITak kontuan hartu beharreko alderdien inguruan erakunde hauek emandako erantzunak jaso dira:

- Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza. Uste dute aldaketak ez dituela modu nabarmenean ukitzen nekazaritza lurzoruak eta erabilerak, eta, hori dela eta, ez dute txostenik egin.
- Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritza. Ingurumen, Lurralde
- Dirección de Desarrollo Rural y Litoral. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco. Considera que la modificación no implica afección significativa a suelos o usos agrarios, por lo que no emiten informe.
- Dirección de Calidad Ambiental. Departamento de Medio Ambiente,

Así mismo, con fecha 15 de agosto de 2010, se publicó anuncio en prensa para identificación y consulta al público interesado, poniendo a disposición de éste la documentación del expediente tanto en la sede del Departamento Foral de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia como en su página web (<http://www.bizkaia.net/evaluacion/>). Las respuestas recibidas a las consultas realizadas deberán tenerse en cuenta en la elaboración de la Modificación Puntual de las NNSS de Mendexa en la Unidad de Vista Alegre y de su Informe de Sostenibilidad Ambiental (ISA en adelante).

Finalizado el plazo estipulado han sido recibidas las respuestas de las siguientes entidades, que señalan los aspectos que ha de contemplar el ISA:



Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza. Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala gara dezaketen eta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio banakako edo sinplifikatu baten pean egongo diren proiektuak identifikatu dituzte.

- Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunerako Zuzendaritza Orokorra. Ingurumenaren eta Landagune eta Itsas Ingurunearen Ministerioa. Adierazi dute alde horretan itsas-lehorreko jabari publikoaren mugak ezarri zirela (DL 89-IV). Adierazi dute babespeko zortasun aldeak eta eraginaldea ukitzen dituela, eta itsasertza tratatzeko gidalerroak ezartzea gomendatu dute (Kostaldeen Zuzendaritza Nagusiak egindako dokumentua). Halaber, Natura 2000 Sareari dagozkion guneen inguruan animalia eta landare espezie interesgarriak daudela adierazi dute.
- Ekozain elkarte ekologista. Aldaketa puntualaren aurka daudela adierazi dute, hiru alderdi hauek oinarritzat hartuta:
  - Bere hartan jarraitzen dute lehen ere (2003/11/04) ezekoa emateko zio izan ziren baldintzek. Uste dute oraingo proposamena 2002koaren antzekoa dela eta EHLABk horri ezekoa emateko txostena egin zuela, haren ustez jardunaren erdiespena Arau

Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco. Identifica los posibles proyectos de desarrollo de la modificación puntual de NNSS que estarán sometidas a evaluación de impacto ambiental individual o simplificada.

- Dirección General de Sostenibilidad de la Costa y el Mar. Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino. Indica que en esta zona se realizó el deslinde del Dominio Público Marítimo-Terrestre (DL 89-VI). Indica afección a las zonas de servidumbre de protección y a la zona de influencia, recomendando la adopción de las “Directrices para el tratamiento del Borde Costero” (documento elaborado por la Dirección General de Costas). Se relaciona igualmente la presencia en el entorno de espacios pertenecientes a la Red Natura 2000, presencia de especies de fauna y flora de interés.
- Asociación Ecologista Ekozain. Indican su oposición a la modificación puntual, basándose en 3 aspectos:
  - Persistencia de las condiciones que motivaron la anterior denegación (04/11/2003). Considera la propuesta actual similar a la de 2002, sobre la cual la COTPV emitió informe denegatorio por entender que el alcance de la actuación debería ser tramitado como

Subsidiarioen berrikuspen gisa izapidetu behar zelako, eta ez aldaketa puntual gisa.

- Egoitza lurzorua eskaintza ez dago bidezkotuta. Adierazi dute gehiegizkoa dela gaur egungo Arau Subsidiarioen egoitza eskaintzak duen hazkunde potentziala, eta ez dute beharrezkotzat jotzen zabaltzea.
- Ingurumenaren gaineko eraginak ugaritu egiten dira. Hasierako dokumentuko hainbat alderdi aipatu dituzte, hala nola baldintza geoteknikoak aurkakoak direla, malda handiak dituela eta hainbat animalia espezierentzako lehenespenezko banaketa alde gisa dagoela definituta eremuaren ingurunea. Halaber, *ES-2130010: Lea ibaia* GKL aipatu dute, paisaia aldetik balio handiko aldea baita, eta Vista Alegre agertzen dela ere adierazi dute, D babes mailarekin katalogatutako elementua.

Halaber, Guillermo Ruiz de Erentxunek, Mendexako Likoa auzoko Villa Itxaso hotelekoak, alegatu du ez dela zuzena bere jabetzako hiri lur-zatiaren eta Vista Alegre unitatea aldatzen duen eremuaren arteko muga, Arau Subsidiarioen Aldaketari buruzko agirietan adierazitakoa. Planoa aurkeztu du, eta zuzentzeko eskatu du.

revisión de las NNSS y no como Modificación Puntual.

- Carencia de justificación de la oferta de suelo residencial. Se indica como excesivo el potencial de crecimiento de la oferta residencial de las actuales NNSS, no considerándose necesaria su ampliación.
- Multiplicación de impactos ambientales. Se refieren aspectos del propio documento inicial, en referencia a las desfavorables condiciones geotécnicas, altas pendientes, definición del entorno del ámbito como zona de distribución preferente para varias especies faunísticas. Así mismo relaciona el LIC *ES-2130010: Río Lea*, que se trata de una zona de muy alto valor paisajístico y la presencia del elemento “Vista Alegre” catalogado con nivel de protección D.

Así mismo, D. Guillermo Ruiz de Erentxun, del Hotel Villa Itxaso, situado en el barrio Likoa de Mendexa, alega que el límite entre la parcela urbana de su propiedad y el ámbito de modificación de la unidad de Vista Alegre, indicado en la documentación de la Modificación de NNSS, no es correcta. Aporta plano y



solicita corrección.



*Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak 9. artikuluan ezartzen duen mandatua betez, identifikatuta geratu dira ukitutako administrazio publiko gisa erantzun duten erakunde kontsultatuak eta publiko interesdun gisa jotako pertsonak, eta ohartarazi da publikoa dela erreferentzia dokumentu honetako edukia.*

Aurkeztutako dokumentazioa eta kontsulten izapidean jasotako erantzunen edukia aztertu ostean eta ukitutako aldea bisitatu ostean, erreferentzia dokumentu hau egin da.

## **IRAUNKORTASUN PRINTZPIOAK ETA PLANARI APLIKA DAKIZKIOKEEN INGURUMEN HELURU ETA IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK**

Lurralde plangintzak eta berau garatzeko estrategiek erabat errespetatuko dituzte garapen iraunkorraren printzipioak. Printzipio horiek modu orekatuan integratu behar dituzte ekonomia, gizarte, ingurumen eta kultur arloak.

### **3.1 IRAUNKORTASUN PRINTZPIOAK.**

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira lege eta dokumentu hauetan jasotako iraunkortasun printzipioak eta ingurumen helburu eta irizpide estrategikoak.

- *Ingurumenari buruzko Europako Erkidegoaren seigarren Ekintza Programa (2002-2012).*
- *Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020)*

En cumplimiento del mandato del artículo 9 de la *Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de determinados planes y programas en el medio ambiente*, quedan identificados los organismos consultados que han emitido respuesta como administraciones públicas afectadas y las personas señaladas como público interesado, haciendo constar que el contenido del presente Documento de Referencia es público.

Una vez analizada la documentación aportada, el contenido de las respuestas recibidas durante el trámite de consultas y girada visita al ámbito afectado, se emite el presente Documento de Referencia.

## **PRINCIPIOS DE SOSTENIBILIDAD Y OBJETIVOS Y CRITERIOS AMBIENTALES ESTRATÉGICOS APLICABLES AL PLAN**

La planificación territorial y las estrategias de desarrollo del mismo, respetará plenamente los principios del desarrollo sostenible, los cuales deben incluir una integración equilibrada de la dimensión económica, social, medioambiental y cultural.

### **3.1 PRINCIPIOS DE SOSTENIBILIDAD.**

Se tomarán como base fundamental para la elaboración del plan los principios de sostenibilidad, objetivos y criterios ambientales estratégicos contenidos en:

- *El VI Programa de Acción comunitario en materia de medio ambiente (2002-2012).*
- *La Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 y el*



eta Euskal Autonomia Erkidegoko  
II. Ingurumen Esparru Programa  
(2002-2006).

- Bizkaiko Foru Aldundiaren *Bizkaia 21 Egitasmoa*.
  - *Tokian Tokiko Bizimoduan Gizonezkoen eta Emakumezkoen arteko Berdintasuna lortzeko Europako Gutuna*. 24-28. artikulua.
  - *3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurumena Babestekoa*. 10, 23, 25, 28, 30, 69 eta 83. artikulua.
  - *16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Babestekoa*. 2. artikulua.
  - *42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa*. 2. artikulua.
  - *1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena*. 3. artikulua.
  - *22/1988, uztailaren 23koa, Kostaldeari buruzkoa*. 20, 21 eta 22. artikulua.
  - *2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesten duena*. 2 eta 10. artikulua.
  - *2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa*. 3. artikulua.
  - *17/2008 Legea, abenduaren 23koa,*
- II *Programa Marco Ambiental* de la CAPV (2007-2010).
  - El *Programa Bizkaia 21* de la Diputación Foral de Bizkaia.
  - *Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local*. Artículos 24 a 28.
  - La *Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco*. Artículos 10, 23, 25, 28, 30, 69 y 83.
  - La *Ley 16/1994, de 30 de junio, de conservación de la naturaleza del País Vasco*. Artículo 2.
  - La *Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad*. Artículo 2.
  - La *Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas*. Artículo 3.
  - La *Ley 22/1988, de 23 de julio, de Costas*. Artículos 20, 21 y 22.
  - El *Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo*. Artículos 2 y 10.
  - La *Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo*. Artículo 3.
  - La *Ley 17/2008, de 23 de diciembre,*



*Nekazaritza eta Elikagaigintza  
Politikakoa. 5 eta 6. artikulua.*

*de Política Agraria y Alimentaria.  
Artículos 5 y 6.*

### **3.2 INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK.**

Vista Alegre unitateari dagokion Mendexako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari honako ingurumen helburu nagusi hauek zaizkio aplikagarri:

- Lurraldearen erabilera orekatua lortzea. Herri trinko eta askotarikoa sustatzea.
- Natur baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea. Lurzoruaren kontsumoa minimizatzea.
- Pertsonen mugikortasun eskaria kudeatzea, garraio moduak beste bide batzuetara bideratuta, hala nola oinez ibiltzera, bizikletaz ibiltzera eta garraio kolektiboa erabiltzera.
- Energia aurrezkia, energia eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
- Hondakin gutxiago sortzea eta hondakinen kudeaketa hobetzea, tratatu gabeko hondakinik batere ez isurtzea lortu arte.
- Soinu eta/edo argi kutsadura ohartematea, zaintzea eta murriztea, giza osasunean, ondasunetan edo ingurumenean eragin ditzakeen kalteak saihesteko eta murrizteko.
- Natur ingurunearen gaineko presioa geratzeko. Biodibertsitatea eta geodibertsitatea ez galtzeko

### **3.2 OBJETIVOS AMBIENTALES Y ESTRATÉGICOS**

Los principales objetivos ambientales aplicables a la Modificación Puntual de las NNSS de Mendexa en la Unidad de Vista Alegre son los siguientes:

- Lograr un uso equilibrado del territorio. Fomentar el municipio compacto y diverso.
- Fomentar el consumo responsable de los recursos naturales. Minimizar el consumo de suelo.
- Gestionar la demanda de movilidad de las personas reconduciendo el reparto modal hacia el caminar, la bicicleta y el transporte colectivo.
- Fomentar el ahorro de energía, la eficiencia energética y el uso de energías renovables.
- Reducir la generación de residuos y mejorar su gestión hasta alcanzar un nivel de vertido cero de residuos no tratados.
- Prevenir, vigilar y reducir la contaminación acústica y/o lumínica, para evitar y reducir los daños que de ésta pueden derivarse para la salud humana, los bienes o el medio ambiente.
- Detener la presión sobre el medio natural. Evitar la pérdida de biodiversidad y geodiversidad

modua egitea, habitaten eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra babestuta eta berrezarrita.

- Landa ingurunea babestea, nekazaritza jarduerari lotutako lurzorua erabilera jarraitu eta egoki bat sustatuta, nekazaritza jardueraren barruan nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza sartzen direla.
- Lur azpiko nahiz lur azaleko ur masek egoera ekologiko ona izan dezaten lortzea eta narria daitezen galaraztea, pertsonen bizimoduaren garapena eta kalitatea eta ekosistemen egoera ezin hobek izan daitezen.
- Lurralde osoko airearen kalitatea hobetzea, bereziki eragiten baita pertsonen osasunari eta bizikaltateari, hiriguneetan arreta berezia jarrita.
- Paisaiaren kalitatea babestea edo, hala badagokio, hobetzea.
- Arrisku naturalik eta teknologikorik ez eragitea edo, hala badagokio, ezabatzea.
- Berotegi efektuko gasen igorpena mugatzea eta klima aldatetara egokitzeko modua kudeatzea, aurrez ikusitako eraginen aurrean dugun ahultasuna minimizatuta.

Planak ingurumen helburu espezifikoak hartu ahalko ditu, adierazitako ingurumen helburuetan oinarrituta. Nolanahi ere, ingurumen helburu espezifiko horiek

mediante la protección y la restauración del funcionamiento sostenible de los hábitats y ecosistemas

- Proteger el medio rural, promoviendo un uso continuado y adecuado del suelo ligado a la actividad agraria, abarcando lo agrícola, lo ganadero y lo forestal.
- Alcanzar un buen estado ecológico de las masas de agua tanto subterráneas como superficiales e impedir su deterioro para contribuir de modo óptimo al desarrollo y calidad de vida de las personas y al buen estado de los ecosistemas.
- Mejorar la calidad del aire en el conjunto del territorio por su particular incidencia en la salud y la calidad de la vida de las personas, prestando especial atención a los núcleos urbanos.
- Proteger o en su caso mejorar la calidad paisajística.
- No provocar o, en su caso, eliminar los riesgos naturales y tecnológicos.
- Limitar las emisiones de Gases de Efecto Invernadero y gestionar la adaptación al cambio climático minimizando nuestra vulnerabilidad ante los impactos previstos.

El plan podrá adoptar objetivos ambientales específicos basándose en los objetivos ambientales señalados. En todo caso, estos objetivos ambientales

eremuko ingurumen diagnostikoari eta atal honetan adierazitako ingurumen helburu guztiei erantzungo diete. Modu hierarkizatuan azalduko dira, duten garrantzi erlatiboaren arabera, eta betetzen direla egiaztatzeko bidea ematen duten adierazleak erantsiko zaizkie.

### **3.3                    INGURUMEN                    IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK.**

Ondoren azaltzen diren ingurumen irizpideak koherenteak dira adierazitako ingurumen helburuekin, eta estrategikotzat hartu behar dira:

- Behar beste bidezkotzea aldaketaren eskaria eta neurria, hala aurreikusitako aparkalekuari dagokionez nola egoitza garapenari eta sarbideei dagokienez. Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatu beharreko azalerek proportzio egoki eta zuzena gorde beharko dute biztanleriaren hazkunde aurreikuspenekin, duten hartze-ahalmena kontuan hartuta, *Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko* 14. artikularekin bat etorritz. Horregatik, zorrotz aztertu beharko dira plangintzaren bidez bete beharreko beharizanak, aurreikusitako garapenak neurritz kanpokoak izan ez daitezzen.
- Lehenatasuna ematea jadanik artifizializatuta edo kalifikatuta dauden lurzoruen erabilerari, batez ere nekazaritza lurzorua eta lurzoru naturala gordeta.
- Eraikuntza dentsitate handi samarra izango duen hiri egitura sarri,

espezifikoak responderán al diagnóstico ambiental del ámbito y a cada uno de los objetivos ambientales señalados en este apartado. Se expondrán de forma jerarquizada en función de su importancia relativa y deberán acompañarse de indicadores que permitan verificar su cumplimiento.

### **3.3                    CRITERIOS                    AMBIENTALES ESTRATÉGICOS.**

Los criterios ambientales que se señalan a continuación son coherentes con los objetivos ambientales señalados y deben considerarse estratégicos:

- Justificar suficientemente la demanda y el dimensionamiento de la modificación, tanto para el parking previsto, para el desarrollo residencial como para los viales de acceso. Las superficies a clasificar como suelo urbanizable deberán guardar adecuada y directa proporción con las previsiones de crecimiento poblacional, considerando su capacidad de acogida, de acuerdo al art. 14 de la *Ley 2/2006, de suelo y urbanismo*. Por ello se deberá analizar con rigor las necesidades existentes a dar respuesta por el planeamiento, evitando el sobredimensionamiento de los desarrollos previstos.
- Priorizar la utilización de suelos ya artifizializados o calificados, especialmente preservando el suelo agrario y natural.
- Fomentar una estructura urbana densa, compacta y compleja, con

trinko eta konplexu bat sustatzea, agertutako beharrizanei erantzuteko. Hiri bereizketa eta barriadak saihestea, erabilerek eta jarduerak espazio aldetik egoki integratuta eta kohesionatuta jarraitu ahal izan dezaten, hainbesteko mugikortasunik ez sortzeko helburuarekin. Irizpide hori azpiegitura eta zerbitzuen sistema orokorrak dauden lekuetan ere aplikatuko da.

- Lehenetsia ematea herriko jatorrizko guneetan eraikitako eta urbanizatutako ondarea leheneratzeari eta biztandu gabeko ondare eraikia erabiltzeari.
- Lurzoruaren erabilera modu misto eta malguan planifikatzea.
- Bigarren egoitzaren eta turismo eredu hedagarrien eskaintza minimizatzea.
- Garapen berriak kokatzeko lurzoruek ezaugarri hauek izango dituzte: irisgarritasun ona garraio publikoa eta/edo auto pribatua ez beste garraio bide batzuk erabiltzeko; energia hornidura bideragarria, erraza eta azkarra, iturri berriztagarrietatik datorren energia oinarritutako energia hornidurarako sistema deserdiratuen bidez lorturikoa; garapen horiei zerbitzu ona emango zaiela bermatuko duten ur hornikuntza eta saneamenduko saretarako sarbidea.
- Ur balantzea eta sistema kargatzeko ahalmena kontuan

densidades edificatorias relativamente elevadas, para dar respuesta a las necesidades planteadas. Evitar la segregación y dispersión urbana para posibilitar el mantenimiento de la correcta integración y cohesión espacial de los diversos usos o actividades con el fin de reducir la generación de movilidad. Este hecho se hará extensible a la ubicación de los sistemas generales de infraestructuras y servicios.

- Priorizar la regeneración del patrimonio construido y urbanizado en los núcleos originarios de la localidad y la utilización del patrimonio edificado no habitado.
- Planificar de manera mixta y flexible los usos del suelo.
- Minimizar la oferta de segunda residencia y modelos turísticos expansivos.
- Los nuevos desarrollos se localizarán en suelos con: buena accesibilidad al transporte público y/o a otros modos de transporte diferentes al coche privado, donde sea viable, sencillo y rápido el suministro energético mediante sistemas descentralizados de suministro de energía basados en energía procedente de fuentes renovables, acceso a redes de abastecimiento y saneamiento de aguas que garanticen el correcto servicio a dichos desarrollos.
- Considerar el balance hídrico y la capacidad de recarga del sistema a la



hartzea lurzoruaen neurriak eta sailkapen eta kalifikazioa ezartzeko orduan, hala lur azaleko nola lur azpiko urak kontuan hartuta. Ur ingurunea eta haren zerbitzuak nahiz ingurua artatzeko neurri egokiak hartzea; horretaz gainera, aurrez ikustea zenbateko eskaria sor daitekeen eta zer baliabide tekniko eta finantzario dauden, ingurumen aldetik onargarria den modu batean erantzungo zaiela bermatzeko.

- Euri ura modu naturalean iragazteko modua egitea, ingurunera itzultzeko, berrerabiltzeko eta uholderik ez izateko.
- 1367/2007 Errege Dekretuan ezarritako kalitate akustikoaren helburuak betetzen direla ziurtatzea. Garapen berriak kalitate akustikoaren aldetik aplikatzekoak diren helburuak ustez betetzen dituzten alde akustikoetan kokatuko dira.
- Erkidegoaren intereseko diren habitatetako osagaiak hondatu, narriatu edo alda daitezen saihestea.
- Lurzoru multzoa antolatzea, irizpide hauek kontuan hartuta:
  - Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzea 2/2006 Legeko 13. artikuluko irizpideei lotzen zaizkien lurzorua.
  - Plangintzak barne hartuko ditu 2/2006 Legeko 53.

hora de dimensionar y establecer la clasificación y calificación del suelo, considerando tanto las aguas superficiales como las subterráneas. Establecer las medidas adecuadas para la conservación del medio acuático y de sus servicios, así como la de su entorno, además de prever las demandas que se generen y los medios técnicos y financieros para garantizar su satisfacción de modo admisible ambientalmente.

- Favorecer la infiltración natural del agua de lluvia, para favorecer su retorno al medio, su reutilización y evitar inundaciones.
- Asegurar el cumplimiento de los objetivos de calidad acústica establecidos en el Real Decreto 1367/2007. Los nuevos desarrollos se localizarán en áreas acústicas donde se cumplan, previsiblemente, los objetivos de calidad acústica aplicables.
- Evitar la destrucción, deterioro o alteración de los componentes del conjunto de hábitats de interés comunitario.
- Ordenar el conjunto del suelo atendiendo a los siguientes criterios:
  - Clasificar como suelo no urbanizable los suelos que se ajusten a los criterios del artículo 13 de la Ley 2/2006.
  - El planeamiento incluirá las determinaciones señaladas en



artikuluari adierazitako zehaztapenak.

- Lurzoru urbanizaezinak lurralde, paisaia eta funtzio aldetik duen egitura gordetzea eta elementu bereziak babestea, erabilerak eta eraikuntza egokia kalifikatu eta araututa.
- Paisaiaren egituratze eta konektagarritasun elementuak mantentzea eta habitaten zatiketa kontrolatzea.
- Udalerriko ondare historiko, arkitektoniko eta arkeologikoa babestea eta sustatzea.

el artículo 53 de la Ley 2/2006.

- Preservar la estructura territorial, paisajística y funcional del suelo no urbanizable y proteger los elementos singulares mediante una calificación y una regulación de usos y de la edificación adecuada.
- Mantener los elementos de estructuración y de conectividad del paisaje y controlar la fragmentación de hábitats.
- Proteger y potenciar el patrimonio histórico, arquitectónico y arqueológico del municipio.

Ingurumen irizpide estrategiko hauek Arau Subsidiarioen Aldaketan ezarritako helburuak lortzeko alternatiben identifikazio, deskribapen eta ebaluazioan sartuko dira. Integrazio horren bidez, aurreneurritzko printzipioan eragin asmo da, ondorioen zuzenketan baino gehiago; hala, aldi berean neurri zuzentzaileak eta/edo konpentsaziokoak ezartzeko beharra mugatuko duen garapen iraunkor bat sustatuko da.

### **3.4 INGURUMEN HELBURUEN ADIERAZLEAK.**

Ingurumen helburuak beteko direla bermatzeko eta horien jarraipena errazteko, ingurumen helburuen adierazle sorta bat izango du Iraunkortasun Txostenak edo Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio

